

# NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA  
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS

*EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA*



Discursos pronunciados con motivo del Acto de Ingreso de:  
FERNANDO TXUEKA ISASTI

Suplemento 20-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
2013



Fernando Txueka Isasti  
(Nuevo Amigo de Número de la RSBAP).





Fernando Txueka Isasti,  
(Nuevo Amigo de Número de la RSBAP)  
Nikanor Lertxundi, (Getariako alkatea)



Iglesia de San Salvador (Gerania)



## HARRERA HITZAK

---

Jose Maria Urkia Etxabe

Getariako Alkate jaun agurgarria Nicanor Lertxundi Ibarguren, Fernando Txueka Isasti Doktore jauna, Adiskide, gaur Euskalerriko Adiskideen Elkarteak ateak zabaltzen dizkizu. Getariko semea ikusten dugu, zure sustriak hemen daude eta zure herriak modu berezi batean babesten zaitu, horrek zerbait esan nahi du. Fernando Txuekaren senideak, familia osoa, bereziki Koro Segurola, eta semeak Joanes eta Beñat. Koro, benetan eskertzen dizut zuk egin duzun lana gaurko ekitaldia hain dotore eta ederra izateko.

Euskalerriko Adiskideen Elkarteko Adiskideak, bereziki Fernando Salazar, Arabako Batzordeko Lehendakari jauna, eskerrik asko Fernando, gurekin izateagatik. Arabako izena eta presentzia zurekin datoz. Getariko herritarrak, sendagile jaun andereak, Fernandoren kideak, egunon.

Nere hitzaldia, harrera hitzak esaten da gure Elkartean, lau atal izango ditu, ez luzeak, laburrak, atariko hausnarketa batzuk, gero, zer den adiskidetasun zentzua gure Elkartean, sendagileen edo osagileen nortasun berezia gure Elkartean eta azkenik Fernando Txuekaren ibilbide pertsonala eta bukatuko dut nire bihotzeko besarkada handi batekin, gure domina eta diploma ematerakoan.

### ATARIKO AGURRA ETA HAUSNARKETAK

Aipatu du berak San Joan bezpera, egun magikoa, hala da, egun magikoa eta aukeratua izan da. Fernando berak, gure ekitaldia aurkezten ari ginenean, berak eman zidan data, San Joan bezpera oso

ondo aukeratua iruditu zitzaidan. Aipatu nahi nuke, gure Elkarteko kideak eta gure Elkarteko maisuak zenbat eta zein ondo idatzi duten San Joan bezperako erritoei buruz, aipatu duzu Aita Barandiaran, Julio Caro Baroja maisuak ere zenbat gauza ederrak idatzi zituen eta gaur egun guk hor daukagu Juanito Garmendia Larrañaga, berak ere asko eta asko landu ditu gai hauek. Baina San Joan bezperak badu gure Elkartean zentzu berezi bat, Azkoitian, San Joan bezpera honetan, gure Elkarteko Zuzendaria aurkeztea izaten da hiru urtez behin, egun garrantzitsua da eta bereziki egun horretan Intsaustin gure Elkarte osoa, berritu dugun Intsausti jauregian, han biltzen gara, Gipuzkoarrak, Bizkaitarrak, Arabarrak eta baita ere Madrilgoak, adiskidetasun zentzuan eta gure Herria maitatzen dugulako.

#### GETARIAKO HERRIA

Hau pertsonala da eta nire arbasoei buruzkoa, nola ez aipatu hemen nire sustraiak, nire aitona Joxe Mari Etxabe Furundarena, Azkizun jaioa izan zen, Agote-haundiko baserrikoa. Aitona nire amaren aldetik, Zumaian ezkondu zen eta han bizitu zen, beti gogoratzen naiz berarekin. Nire gaztetako parajeak dira hauek ere, itsasoa, hemengo pasadizoak eta garai haietan ikasi nituen gauzak, asko zoragarriak, nire burmuinetan zintzelatuta daude eta han gordeta gelditu dira. Eta nola ez, San Salvatore eliz eder honetan Fernandok aipatu duena, hemen ere badaukat lotura txiki bat, nire lehengusu bat, oso maitea, hemengo erretore izan zen garai baten. Eta azkenik zerbait pertsonala baita ere, hil honen 27an orain dela 25 urte Elkarteko kide izendatua izan nintzen eta mahaian izan ninduen zuk aipatu dituzun bi mediku zoragarri, Ignacio Barriola eta Justo Garate, haiek izan ziren nire aita bitxiak.

#### ADISKIDETASUNA

Gure Elkartek badu zentzu berezi bat. Zergatik deitzen gara Adiskideak? Peñafloidak jarri zuen zentzu hau muin-muinean, Iru-rak-baten lema eta hitz zoragarri hau, adiskidetasuna, Peñafloidaren ezaugarri ezin bestekoa izan zen. Zergatik Adiskidea? Berak zion gure Elkartearen zentzu handia adiskideen artean, adiskidetasuna zela. Badakit hitz honek asko galdu duela bere nortasuna, baina berak



esaten zuen adiskideak izan behar dugula zentzu onenean eta berak balio handiagoa ematen zion adiskidetasunari, jakintsua izateari baino. Eta adiskidetasunaren bigarren lotura Herriaren adiskidea izatea da, zuk hori ondo bete duzu, zure Herria maitatzen duzu eta bi gauza hauek ez badira lotzen, ez dago Elkarterik. Pentsatu dezagun konpromiso bat hartzen dugula Elkartean sartzerakoan, adiskideak izatea gure artean, baita ere beste lurraldeekin, Bizkaitarrekin, Arabarekin, Nafarrekin eta Gipuzkoarrekin ere bai, baina hain garrantzitsua den Herriaren Adiskide izatea, Herriarentzat lana egitea.

## SENDAGILEAK

Sendagileak tradizio handia dute Elkartean. Zergatik? Fernandok aipatu du zerbait garrantzitsua, osagile humanistak, zuk kokatu duzu Elkano oso ondo XVI. mendean, humanista bat izan zela, ez zen Canovasek esan zuen bezala praktiko bat, humanista bat ere izan zen. Eta zer dira osagile humanistak? Ez bakarrik bere lana ondo egiten duten osagileak, baizik eta, beste zaletasun batzuk dituztenak, filosofia, herriaren interesa, hainbat eta hainbat gauza pertsona onak izatera laguntzen dutenak pertsona eta sendagile bezala. Hasieran ere ba ziran sendagileak gure Elkartean, Carasa bat, baino Amerikan ere ez dugu ahaztu behar XVIII. mendean gure Elkarreak 500 kide baino gehiago izan zituela Mexikon, haien artean Domingo Rusi bat, hona bidali zuen medikuntzaren hito bat, Dextrocardia, berak lehendabizi idatzi zuen Amarillas mar-kesaren autopsia egin ondoren bilatuta, dextrocardia, bihotza beste leku baten zegoela alegia eta ingelesak nahi dutena esango dute baina hemen azaldu zen lehenengo aldiz. Eta XVIII. mendean sendagile ospetsu batzuk izan ziren, Ruiz de Luzuriaga eta berak egindako monografian, Manuel de Usandizaga ginekologo donostiar ospetsua, urte asko Bartzelonan egindakoa. Manuel de Usandizagak liburu bat egin zuen "Los Ruiz de Luzuriaga, médicos ilustrados" arnasaren fisiologia lehendabiziko aldiz ondo esplikatu zuena. Badago baita ere liburu garrantzitsu bat "La medicina vasca en la época del Conde de Peñaflores" Granjel eta Barriolaren artean egindako Kongresu bat 1985. urtean. Eta sendagileen zerrenda horretan, nola ez, behin eta berriro aipatu nahi nituzke Barriolaren lanak, ondo aipatu dituzu, bera eta Justo Garate benetan ereduak izan dira gure artean eta ibilbide luze horretan salto bat



egingo dut eta hor duzue Granjel nire maisua izandakoa, eta Juan Riera, Valladolideko katedraduna, Munoa izan dugu gure artean, orain omendua. Justo Garate ere izan dugu, Pio Baroja ere, hor izan ziren gure Elkartean zalantzak sartzeko, erlijioa zela eta, baina azkenik egin zitzaion omenaldia, Julio Caro Baroja ere bai eta gaur egun ere aipatu nahi nuke Pedro Gorrotxategi bat, Xabier Larzabal, Enrique Samaniego, Ander Letamendia, badago tradizioa, kate luze bat eta horien artean, nola ez, Fernando Txueka, zu sartzen zara sendagile humanista bat bezala.

Zure ibilbide pertsonala ondo ezagutzen dute getariarrak, baina aipatu nahi nituzke datu batzuk. Bera, sendagilea da, Valladolideko Unibertsitatean jaso zuen lizentziatura 1978an eta gero espezializatu zen Obstetrizia eta Ginekologian 1985ean. Eta herriko medikua ere izan zara eta hori oso garrantzitsua da, toki askotan izan zinen, baina titularra Ataunen. Gasteizen Txagorritxun egin zenuen espezialitatea eta gero zure ibilbidea ginekologo aditu bezala, Zumarragako ospitalean, Bidasoako ospitalean urte asko eta orain Donostiako ospitalean zaude. Irakaslea ere izan zara eta ba zara zure arloan eta esango genuke ginekologiagatik at, humanista, hau da, ez bakarrik lana ondo egitea, baizik eta hor daude zure zaletasunak, Getariako historia eta Elkanori buruz zenbat dokumentu, eta argitaratu dituzun ikerketak. "J.S. Elkanoren jaiotetxea", "Erdi Aroa eta Aro Berria: Itsasoa XV-XIX. mendeetan zehar", "J.S. Elkano. Medikuntza eta gaixotasunak XVI. mendeko nabigazioan", "Getariako Ospitale eta Sorospena". Elkarrizketak, eta gure Boletinean ere argitaratu dituzu modu oso trebean "Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua", "Getariako humilladero: Santa Kruz Ermita zaharraren historia" "Getariako antzinako San Sebastian ospitalea, Magadalena hospizioa eta San Lazaro eta San Anton legenardun-etxea. Hurbilketa historikoa" eta espero dugu jarraituko duzula bide horretatik.

Eta nola ez zure ibilbide pertsonal, zientifiko honetan nahi nuke aipatu beste zaletasun bat, zu izan zera Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko sortzailea eta kidea. Oso garrantzitsua da gure Elkartean mediku euskaldunak euskarari behar duen tokia ematea.

Eta azkenik, nire bihotzeko adiskide, hitz batzuk, zure testuan hasi zera poesiarekin, jarraitu duzu Getariako historiarekin eta gero



gutun eder bat zuzendu diozu Elkanori. Pentsatzen dut Elkanon pozik egon behar duela gaur zuk egin diozun omenaldiarekin. Pertsonalki ikusten zaitut Fernando, izan ditugun elkarrizketekin, gizon sakona, hausnarketa gustuko duzuna, gure herriaren zaletasun bikainekoa, Getariari amodioa duena eta beti daukazu euskara elegante eta landu bat. Eta zu zera ere euskalduna munduari begira, horrela izan behar dugu euskaldunak, Elkanon hala izan zen eta Loiolako Iñazio eta Peñafloreda kondea ere bai.

Gure Elkarteak eskerrak ematen dizkizu, ohore handi bat izan da Fernando, eta benetan eskerrak ematen dizkizut, gainera horrelako ekitaldi bat gutxitan gertatzen da gure Elkartean, zuk eman diozun garrantzia, ohorea eta ospea zuri dagokizu, zuri eta Getariako herriari. Benetan zuek ematen diozue zentzua ekitaldi honi.

Hizlaria  
FERNANDO TXUEKA ISASTI

Getaria  
2012ko Ekainak 23

# JOAN SEBASTIAN ELKANO, GETARIAKO TALAIATIK

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte  
Sarrera-Ikaskaia

Hizlaria  
FERNANDO TXUEKA ISASTI

Getaria  
2012ko Ekainak 23



*Getariako alkate jauna*

*Urkia jauna. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendaria,  
eta Gipuzkoako Batzordeko Lehendakaria*

*Adiskideen Elkarteko lagunak*

*Etxekoak*

*Getariarrak*

*Lagun eta lankideak*

*Jaun-andreak*

*Agur On guztioi*

Antzinatik, oroimenean galdutako mendeetatik, Ipuzkoa zaharreko itsas amildegiaren ertzean egon da Getaria izeneko lurraldea. Bere izana eta halabeharra, Kantauri itsasoari so bizitzea izan da. Hemendik, herri eta kultura ezberdineko pertsonak igaro dira beren arrastoak eta ondarea utziz.

Gure herriaren espazio geografiko eta emozionala orain margo-tuko bagenu, mendeak joan arren itxura berdintsua iduri lezake: nola diren koloreak zeruan, uhinen etengabeko murmurioa haitzean kolpeka, ostantzaren magenta eta gorri-horiak hodeiertzean abailtzean, talaietako mahastien intenporalitate urdindua, *Miako* (Meagako) arkumarka bakanen soslaiia, katxopak infinitotik artaldeetan heltzean... Itsasontziaren ubera galduaren arrastoa... Sananton mendian, zimurtutako kamaxa zaharrak harralderaino esekiak eta makaztutako pikondo bihurriak: *goiz heltzen diren pikuak maite ditu ene bihotzak* zioen Mikel Lasak, ene lagun eta getariar poetak... eta Kanpaiko kardantxuloak udaberriko oroimenean hegan datozkit, pintore eta poeten amets, maiteminduen gune eta kontenplazio hegia.

Getariako historiaren iraganetik iritsi zaizkigun oroit-harriak, berriz, gure ondare fisikoa apika hedatzen joan dira, eta herriaren lehengoa gaurkoaren azpian legoke geruzetan tolestua, eta arras bestelako kolorez estalia, tristeziak beterik eta ilunak. Joandako azken hondamendietatik, herriaren izatearen bizi-iraupenak berreraiki zituen, behin eta berriro bere aurriak. Baita hein batean, bizibidea eta bizipoza ere, eta apika, harriz harri berreginez bere edertasuna berreskuratzea lortu zuen.

Oraindik ere, herrian zehar egin genezake kale-kantoi eta horma zaharretan barrena, historiaren bidaia, mendeetako eginahalak entzun eta irakurriz harrien oihartzunean. Baina, orokorrean ahaztuak izan direla badirudi ere, guztiarekin, aiton-amonengandik jasotako ahozko istorio eta gertakizunak, eta bakoitzaren haurtzaroak, ene uste apalean, getariarren nortasuna markatu dute.

Getaria talaletatik, lehorretik beti kanpora begira, irekia beharko izan bere muga itsasoari marraztua daukanean. Eta balea ardatz izan da Getariaren izaeran eta memorian. Armarrian dago bere izanaren funtsa zizelkatua, balea besterik ez, uraren gainean. Honela, balea subjektu har genezake, eta bere inguruan osatutakoarekin azaldu Getariako historia txikia, idatzi gabeko epika, umilagoa, egiazki iraganaren historia nagusiaren adabakiak ulertzen lagunduko ligu-keena, eta historia mota hori izan dut ikertzerakoan maiteena.

Duela urte batzuk idatzi nuen bezala:

*Kantauri itsasoz betea da  
nire haurtzaroko herria  
eta Talaiko mahasti zaharren oroimenek  
tolestu didate betiro  
nire bihotzeko lokarria.  
...zara joandako harrien doinu, kresalezko amets gozo  
eta antzinako istorioen kaia  
eta mendebaldera ostantzeko niniaren gogonea itzaltzean  
aingura izango zaitut beti  
ene Getaria.*

Balearen inguruan eraiki eta bildu izan da Getariako kondaira txikiaren elezaharra eta bizkarrezurra.



Erromanizazioa amaitzear zenean, Ipuzkoa zaharreko lur hone-tan, mende ilunetan nekazari-arrantzaleen bizilekua izaten jarraitu zuen. Ekonomia xumea zuten. Urtaroaren arabera, baleak ehizatuz eta bazterreko arrantza, oinarrizko lurgintza eta abeltzaintza mu-rritzetik bizi ohi ziren.

Eneolito garaitik atzo arte, ezagutzen dugunaren arabera, udaz-keneko ekinokzioan elurteari ihes, Aralar aldeko sarrietatik eta Na-farroako Urbasa eta Andimendiko goi larreetatik, mendeetako galtzada eta arranbide zaharretan barrena, abere eliak eta artalde andanak etortzen ziren mendiz mendi gure kostaldera. Gure lur eremuan, Askizu eta Garatemendi inguruetan zeuden beraien negu-saroi eta mendi-larreak, eta Arriaundiko murkoetan (tumuluetan) zendutako leinukideen errautsak hilobiratu zituzten.

Jakinduria eta misterioz beteriko eguna da gaurkoa, San Joan bezpera. Getariako herrian, mendeetatik urtero zikloaren hastapena San Joan egunez izaten zen, eta berau akta liburuan jasotzen zen. Gaurko egunez, aginte aldatetarekin batera eraberritzen zen udala. Usadio honek gizaldietan hausturarik gabe iraun zuen.

Horrela, behin batean, litekeena da, San Joan egunetan, udako solstizioan, agian Nafarroako Antso Nagusiaren erregetzan, Getaria-jakituria zaharreko geometra maisu bat etorri izana. Berau, behar-bada, Leireko monastegitik bidalia izango zen, eskuetan lizarrezko haga-makila edo zardaia zuela. Eguzkia gailurreratzen ari zen. Ingu-ruak astiro arakatu ondoren, geometra maisuak indar berezia naba-ritu zuen lekuan, zardaia lurlean tinkatu zuen. Eguzki argiak ez zuen itzalik egiten lurlean eta hautemandako puntu horretan, zizelkatu-tako harri kubiko bat ezarri zuen lurpean. Iparraldeko azimuta zehatz neurtu ahala, ekialdetik mendebaldera ardatz nagusia marraztu zuen orubean. Erdigune horretatik, urrezko zenbakiauren neurri sakratua-ren arabera, sortutako laukiaren eremua mugarritua gelditu zen. Oinarriak finkatu ondoren, hemen Salbatore izeneko eliz erromani-koa eraikitzen hasiko ziren.

Aurrerantzean, Kantauri isurialdetik zihoan Donejakue Bide zaharreko erromesek atsedean eta babesleku izango zuten Getaria. Denborarekin urbanizatzen joango zen Elizaren ingurua. Antolatu ziren harresiak, kale eta etxe orubeak. Balearen ehizatzea herriko



ekonomiaren oinarri eta zutabe zen. Herrixka hazten zihoan heinean, ontzigintza eta itsas merkataritza indartzen joan ziren, Nafar Erresumako portu garrantzitsua izatea iristeraino.

Gaur egun, onartua dago gure euskal historiografian, 1200. urtean Gaztelako Alfontso VIII.ak indarrez Gipuzkoako lurraldea bereganatu izana, Getaria barne, eta konkista izan zela ez dago zalantzarik; idatzia baitago eta baitute gainera, eta ez da asmakizun hutsa.

Getariako fundazioari buruz, honela idatzi nuen orain dela urte batzuk Adiskideen Elkarteko buletinean<sup>1</sup>:

[...] Getariako fundazioaren urtea zehatz ez dakigu, ezta dokumentuaren eduki osoa ere. Garbi esan daitekeena da Donostiak zuen berdina zela eta ia ziur, espainiar historiografia nagusiak bestelakoa badio ere, Nafarroako Antso Jakituna erregeak XII. mende amaieran emana [...].

Beha Erdi Aro hasieratik, euskaldunaren presentzia Ipar Atlantikotik Mediterraneo ekialderaino, itsasgintzan eta komertzioan eza-guna da. Egin diren ikerketek, berretsi eta egiaztatu digute euskaldunek internazionalki garaiko itsas potentzia osatzen zutenaren baieztapena. Nabigaziorako oro har, euskaldunen jakintza eta nagusitasuna Erdi Aroan, Europako Mendebaldean nola burutu zen ez dakigu oraino. Baina, Bizkaiko golkoaren kokapenak pentsarazten digu, Goi Atlantikoa eta Mediterraneoaren arteko itsas komertzioa eta komunikazioaren zubi lanean, artekari izaerak ahalbidetu zuela nagusitasun hori. Eta lagunduko liguke batik bat, Euskal Herriko historiaren lanbroetan galduta dagoen Cadizko *Colegio de Pilotos Vizcainos* deritzanari buruz, etorkizunean emango ditudan argibideak, giltzarri izan daitezkeelako euskal epika hori ere eskuratzeko.

Erdi Aroan, Getaria bereziki Gipuzkoako eta Kantauri aldeko portu gune garrantzitsu eta nagusienetakoa izan zen. Horren lekuko dugu, esaterako, eta labur aipatzearren, Gaztelako erregeak itsasontziak egin eta etxeak eraikitzeko, Gipuzkoako edonongo basoetan beharrezko zuen zura guztia mozteko eman zion baimena.

---

[1] Txueka Isasti, F., 2008, "Getariako erregearen balea eta Donostiako probetua", *BAP* 64-1, 93-158.



1296an *Hermanidad de las Marismas* sortu zenean ere, Kantauriko beste portu batzuen artean, Getariak esku-hartze zuzena izan zuen. Hitzarmen honen jatorrizko dokumentua Getariako Agiritegian zegoen, baina galdu egin zen. Bere edukia, halere, ezagutzen da XVIII. mende amaieran transkripzio bat egin zelako<sup>1</sup>. Dokumentu hau, nire ideiaz eta Jesus Paton lagun kaligrafo artetsuari esker, jatorrizkoaren antzera egin eta berreskuratu ahal izan da. Gaur egun pergamino hori udaletxean dago, areto nagusian zintzilikatua.

Aipatutako nagusitasunaren irudia dugu, era berean, Gipuzkoa eta Bizkaiko itsas portuetako enbaxadoreek, 1351n Ingalaterrarekin Londoneko Dorrean bake akordioa egin zuteneko hartan, hiru sinatzaileetarik bat getariarra izatea. Berau *Martinun Estephan Golin-danokoa* izan zen.

Gipuzkoako Probintziaren sortzea ere, 1397an Salbatore eliz gotiko bikain honetan izan zen. Eliza 1420. urte ingururako amaitua zegoela esaten da. Eraikuntza zibil eta erlijioso garrantzitsuak burutu zituen herriak Erdi Aroan. Besteak beste, hiribildutik Antxirrirako moila zaharrerako pasabide edo harresi galtzada egiten urteak zermatzaten, eta denboraleak eta itsasoaren erasoak behin eta berriro suntsitu arren, amaitzea lortu zuten 150 urte igaro ondoren. Ziurrenik garaiko Gipuzkoako lurraldean egin zen eraikuntza zibil handienetakoa izan zen, eta orain urte gutxi tamalez estalia izan da.

Euskaldunek ondo zekiten orduko munduaren berri, informazio osoa zeukaten hainbeste merkataria, itsas maisu eta piloturekin Atlantikotik Mediterraneorako komertzioan ibiltzeko. Mende hauetako getariarren aipamenak, han-hemenka zailtasun handiarekin jaso izan ditugu. Nolanahi ere, eta besteak beste, hona lekukotasun bat: 1384an *Juan Ibañez de Iceta* itsas maisu getariarrak, *Santa Maria* ontziarekin Ibizatik Genoara gatza garraiatu zuen, eta itzuleran salgaiarekin Valentzian parada egin. Ondoren, garaiko Granada musulman erresumako portuetan salerosketan ibili eta gero, Cadizen zama hartu eta La Rochellera iritsi zen, eta handik Southamptonera faktoreak aginduta.

---

[1] Gerora, transkripzioa *La Marina de Castilla* liburuan (Fernández Duro, C.,) argitaratu zen.

Hemen eta gaur, labur bildu arren, honelako lekukoek ere osatzen dute gure herriko historia txikia, talaiatik zein itsasotik begiratuta.

Getariako agiritegiaren aberastasunak ere, herriaren ahalmen historikoaren garrantzia adierazten zuen. Hara Vargas Poncek 1802an zer idatzi zion Arantzazuko Aita Echeverria frantziskotarrari<sup>1</sup>:

Fui a Guetaria en cuyo archivo me aseguraban nada hallaria; y he hallado el mas rico de los diplomas, que empiezan en 1202, que hasta ahora conozco en esta Provincia. Contaba con algun amanuense y no pude contar sino con mis dedos que muchos dias dejaron inchados la improba y material tarea [...].

Eta frantziskotarrak Arantzazutik honela erantzuten dio ironia ttantta batekin: «Felicito a Vm por el hallazgo de Guetaria en el supuesto que no tengamos que decir, *merito cedimur*, pero siento en el alma, que no disfrute Vm de tanta robustez [...]».

Zenbat altxor eta ondare galdu ditugu, Getariako Agiritegiaren birrintze eta suntsiketarekin?

Elkanoren garaiko Getaria zer zen jakiteko, ez dugu grabatu edo margorik jaso ahal izan. Hala ere, eskuizkribu batetik jaso ditudan eta gaur jakinarazten dizkizuedan ondoko zertzelada eta datuek XV. mende amaieran, 1483an, hiribilduaren edertasuna agerian uzten dute<sup>2</sup>: «según el censo o quadernos de los millares hecho por estos años habia en Guetaria:

16 casas torres  
280 casas y caserías  
249 solares o sin casa (asi habia 57 propietarios mas  
que sin propiedad)  
1 nao, 4 caravelas, 3 navios, 18 chalupas... en todo 26 buques hoy  
549 hombres al menos  
6 mancebas vulgo putas  
5 ferrerías tenia el concejo entre otros propios  
7 pilotos

[1] Real Academia de la Historia. Vargas Ponce 9-4188. Aranzazu nº 24.

[2] Real Academia de la Historia. Vargas Ponce 9-6077. 1483.



Varios plateros  
Calafates, carpinteros y toneleros  
Muchos zapateros.  
Medico y sastre [...].

Eta gure eskribau honek honela jarraitzen du:

Y en vano esto y lo de arriba... satisfaría... esta pujanza ? en el mejor Cº de Guip. desp. de Pasaje. Y aquello era antes del descubrimiento de la America y antes de las grandes obras sin duda,... incendio. 1580 y desde entonces a 1660 declino... casi se aniquilo en 1700 y ahora le queda faro y no mas [...].

Laburki adierazitako zertzelada hauek, eta mota honetakoek, azalarazten dute zer den edo zenbat den gure historian tolestua dagoena, eta arras bestelako kolorez estalia.

Medikua izanik neroni, Getarian XV. mendean sendagilea bazela jakitea, oso adierazgarria da. Begira ehun urte beranduago Lopez de Isastik zer zioen: «De cien años a esta parte se hallan medicos en esta provincia, y de ellos pocos, que por haber hecho diligencia no he hallado mas que diez y siete, porque los naturales de Guipúzcoa no se inclinan a esta facultad sino es por maravilla [...]».

XV. mende amaiera honetan, Getariako herria munduko itsasgintzari eta merkataritzari lotua zegoen, eta Elkanotarren familia bereziki lekuko zen. Joan Sebastian Elkanoren gurasoak ere getariarrek zirela ez dugu zalantzarik, bere testamentuan honela dio-eta: «Item mando que se me hagan mis aniversarios y exequias en la dicha villa de Guetaria en la iglesia de San Salvador, segund a persona de mi estado, en la huesa donde estan enterrados mi padre e mis antepasados [...]».

Besterik esan badute ere, Joan Sebastianen aita, *Domingo Sebastian Elkanokoa*, itsas-maisu eta merkataria zen. Sendiaren jarduera nagusia itsas-merkataritza izanik ere, ondare zabalak zituen herrian, Getariako milare liburuetan azaltzen den bezala. Bera 1474. urtean Errege aginduaren aurka sinatu zuten 128 getariarren artean zegoen. Aurreko mendetatik, izan ere, getariarrek urtero ehizatzen zuten lehenengo balea erregearena izaten zen, eta honek Donostiako probestuari dohaintzan opa zion. Getariarrek uko egin zioten errege

agindu honi, eta herriko beharretarako eskaini zuten hitzarmen gogoangarri batean.

Joan Sebastianen ama *Katalina del Puerto* zen, Getariako *Portu-tarren* leinukoa eta tradizioz mendeetan hainbat eskribau eta elizgizonen familiakoa.

Bost anaia eta hiru arreba, dakigularik, izan zituen Elkanok. *Sebastian* zen anaia zaharra, bere espedizioan joan ez zena. Mediterraneo portuetan ikusi dugu merkataritzan eta beharbada inor gutxi jakingo duenez, aipatu nahi genuke 1507an Napolin aurkitzen dugula, eta 1517an Siziliako Mesina hirian. Napolin, *Jakobo Ipintza* zestoarraren testamentuan lekuko izan zen. 1517an, Zestoako Altzolarats jauregiko *Domingo Arronak* ahalmena eman zion bere burdinak Siziliako Mesina hirian, ahalik eta prezio onenean sal zitzen.

Beste anaietako bat, *Domingo* izenekoa, Elizgizona zen. Gaur egun ikusten dugun eliz dorrea esleitu eta eraikitzeko, *Veracruz* kofradiako arduraduna izan zen.

Beste hiru anaiak, hainbat eskuizkribu transkribatzean, elkarrekin ikusi ditugu. 1556an beraien ama Katalinak, andere aguretua zela, erregeari diru zorrak ordain arazteko egindako erreklamazioan azaltzen dira izendatuak. Hiru anaia hauek J.S. Elkanorekin batera Moluketara bigarren espedizioan joan ziren, eta agidanez denak galdu ziren: «[...] *bachiller Gainza* en nombre... de los herederos del cap. *J<sup>o</sup>n sebastian de elcano* e de *anton mtn de elcano* e de *ochoa mtn de elcano* e de *mtn ps de elcano* e de *santiago de guevara* e de *esteban de mutio* e... defuntos que fueron en la armada de maluco [...]» [Azpimarra gurea].

Arrebetako bat *Katalina* zen, eta honen semea *Rodrigo Sanchez Gainza* batxiler apaiza zen. *Inessa*, beste arreba, *Santiago Gebara* getariar kapitainarekin ezkondua zegoen. Gebara hau, bere ontzia «Santiago» izenekoarekin joan zen Elkanorekin espedizioan, Moluketara. *Maria* izeneko beste arreba bat ere azaltzen zaigu, eta *Esteban Mutioren* ama zen.

*Joan Sebastian Elkanokoaren* jaiotza-data, 1486an kokatu dugu, beste egile batzuen esanarekin bat etorriz. Izan ere, Magallanesen



espedizioko eskifaian, 1519an, «32 urte» zituela agertzen baita eta zendu zenean, berriz, «40 urte» inguru.

Elkanok seme bat izan zuen Getariako *Maria Ernialdeko*arekin, *Domingo* izenekoa, eta Valladoliden *Maria Vidaurreta* alargunarekin alaba bat.

Erdi Aroaren amaieran eta Aro Berriaren hastapenean, Errenazimentu garaian kokatzen da Elkanoren bizitza eta ibilbidea. Besteak beste, Leonardo da Vinci, Pico della Mirandola, eta berak ezagutu ez arren, Copernicoren teoria heliozentrikoaren garaia eta ikurra ere izan zen hura. *Elkano, bere garaiko gizona izan zen*. Zuen jakintzagatik, *errenazimentuko gizona* izan zela aitortzen dugu gaur ere.

Elkanoren biografian, albiste gutxi agertu dira munduari itzulia eman baino lehenagokoak. Euskaldunak, Mediterraneoan merkataritzan, eta aldi berean Kortsoan ibiltzen zirela, jakina da. Itsas legeriarik ez zen garaiak ziren haiek. Gudaldietan, beraien ontziak erregeen itsas armadak osatzeko prestatzen zituzten, eta gudaldi hauetan ontzi gehienak Gipuzkoa eta Bizkaikoak izaten ziren. Napolin, genoarrentzat mertzenario eta kortsario gisa, turkiar eta berberiarren aurka, Aljeria, Oran, Bugia eta Tripolikoko borrokaldietan, Erronkariko euskaldun bat nabarmendu zen, *Pedro Navarro* edo *Pedro Vizcaino* izenekoa, eta itsas almirantea zen. Hara nola esaten den 1515ean: «[...] Navarro empezo reclutando veinte compañías de gascones, vascos y navarros para apoyar una incursión francesa en Italia [...]». Hauen itsas garraiolariak euskaldunak ziren noski, tartean getariarrak ere bai, ziur aski. Esan beharrik ez dago, ongi suertatu ezker, horren truke garaiko irabaziak ikaragarriak izango zirela. Aitzitik, okerrean zorrak eta itsasontzien galera.

Elkanok ere bere ontzia horrela galdu zuen, eta erregeren aginduaren aurka ontzia etsaiei saldu izana zigortua zegoen. Arrazoi honengatik, Elkano Magallanesen espedizioan ezkutuka eta zeharka erroldatu zela aipatu izan da. Gure ustez, besterik ere bada. Espedizio hau Sevillako Kontratazio Etxean antolatu zen, eta hor euskaldunen presentzia nagusia zen. Garai haietan, harremanak zuzenekoak ziren euskaldunen artean, eta han ziren Kontratazio Etxean, besteak beste, Juan Lpz Errekalde azkoitiarra, Pedro Isasagakoa, Domingo Otxandiano kontratatzailea, eta Nikolas Artieta lekeitiar kapitaina izan zen



itsas ontzietako horniketaren arduraduna. Denen buru, ordea, Dr. Matienzo bizkaitarra zen. Honen iloba, Juan Lpz Ibarrola eta Gainza getariar kontulari zenaren alabarekin ezkondua zegoen. Getariako Elkanotarrak, eta Gaintza eta Ibarrolatarrak familiarteko zuzenak ziren. Horra, bada, gure ustez, Elkano Magallanesen espedizioan *itsas-maisu*, eta ez marinel gisa, joan izanaren arrazoi nagusia.

Hemendik aurrerakoak azaltzeko, eta beste hainbat gertaeren berri emateko, getariar baten talaiatik, orain Joan Sebastian Elkanori zuzenean ariko natzaio.

## ELKANORI ESKUTITZA

Joan Sebastian Elkanokoa, Agur On urteetako bidelagun bakarti hori:

Ezusteokan izango zara, zure jaioterriko Salvatore eliz nagusi bikain honetan, XIII. mendeko ponte honen aurrean, atrebentziaz, zuka eta ez beorika, hitz hauek zuregana zuzentzean. Bada galdua zinela mundu honetatik doi bat orain bost mende Pazifikoko itsas zabalean.

Askok ongi dakite getariarra zinela, baina beldur naiz azken aldian euskaldunen artean oro, ahantzi xamarra egotea edota desitxuratu egin izana zure izena eta ekintza gogoangarriak.

Kantabriako ur eta lur hauetan, joandako gizaldietan hain handi izan zinen arren, denborak oroimena lizundu egiten du eta itsas kresalak harri-mimarria hondar bihurtu. Zu galdu eta geroztik, oker ez banaiz, aspaldi honetan nago inork ez dizula albisterik igorrazazi zure herri honetako gertakizunen berri emateko. Eta ordu ezkerok zure jakinduria zaharra duzula lausotua, betirako oroitzapen eta liburu galduen hilerrian abandonaturik. Baina jakizu, hau ez dela hala gertatu.

Gogonean izango dituzu, haurtzaroan, etxeokoen artean eta herrian jasotako elezahar, eta urruneko itsas bidaietako kontakizunak. Mediterraneo eta Atlantikoko portu eta hiri miresgarriak, ordurako Ternuako euskal marinelen isilpeko bale ehizaren handitasuna, aurkitu berria zen Indietako lurren liluramendua, eta ezin sinetsizko



beste hainbat mirari eta aberastasun harrigarriak. Euskaldunen epopeia haiek, apenas, lehen eskutik idatziak eta jasoak izan diren, gure beste historia bat berregiteko. Eta nonbaiten bertzela izan bada, ezkutatuak eta ezabatuak daudela esango nuke, gure oroimenaren ganbaretan bezala.

Joanes, hitza jan eta begia erne, irudimen mundua sortuko zitzaizun, Salbatore elizako eskola-txikian, abade kanonikoek *laude*-tako kantua bukatu eta *primaren* kanpai hotsa entzundakoan, hautatutako mutil koskorrei *trivium* eta *quatriviumaren* zientziak irakasterakoan.

Maite zenituen geometria, eta Ptolomeoren mapak. Eratostene-sen aspaldiko esana, mendeetan onargarria izan ez zena inondik ere, baina hala ere, geometria maisuak ahopetik zioen mundua biribila zela, eta areago, atrebentziarekin neurtu zuen doi-doi munduaren zirkunferentzia. Garai horietan, nerabezaroan, handia izango zen geometria eta aritmetikarekin mundua neurtu zitekeela jakitea.

Aldi berean, astronomiako oinarriko jakintzarekin, unibertsoan zeure burua itsas erdian kokatzeko ezagutza barneratu zenuen, eta gaur galdua den latina ere ikasi. Menderatu zenuen, zure mundu jakineko hizkuntza.

Zortzi urte inguru izango zenituela, biziki liluratuko zizun 1494an gertatua. Herriko ate nagusitik, erromes ospetsu bat igaro zen, eta *Martir* izeneko *armeniar gotzaina* zen. Europa osoa zeharkatuz, Armeniatik Compostelako Santiagoraino erromes bidaiaria oinez eta bakarrik egin zuen. Ondoren, bere bidaiako pasadizo eta gertakizunak idatziz jaso zituen<sup>1</sup>.

[1] Martir armeniar gotzainaren bidaiako egunkaria armenieratik itzuli ostean, islamiar kopiaztaille batek 1684an jaso zuen, eta Parisko Errege Bibliotekan gorderik urteetan egon zen. 1827an M. J. Saint Martin jaunak frantsesera itzuli zuen. Ondoren, Emilia Gayangos de Riaño andreak gaztelaniara itzuli zuen eta 1898an Madrilan argitaratu. Azkenean, J. M<sup>a</sup> de A. sinadurarekin "El mensaje del patron de Guetaria" izenburupean azaldu zen. Artikulu honen iruzkina, gainera, Getariako 1952ko festen egitarauan azaldu zen. Ikus baita: García Mercadal, J., 1999, *Viajes de extranjeros por España y Portugal*, Salamanca, Tomo I: 391- 398.



Bere kronika horretan, Santiagotik itzulerakoan, kostako bide zaharretik Getariara iritsi zela eta parada atsegina egin zuela aipatzen du: «[...] camine por espacio de veintisiete días y llegue a la bendecida ciudad de Guetaria, donde fui muy bien tratado, permaneciendo en ella siete días [...]»<sup>1</sup>.

Portuan itsasontzi bat prestatzen ikusi zuen, eta nekatua eta oinez ibiltzeko zailtasunak zituelako, itzulera itsasoz egitea otu zitzaion. Herriko apaizen laguntza eskatu zuen eta hauek ontzi-maisuarekin artekaritza egin ondoren, Martir armeniar gotzain hau ontzi horretan 1494ko apirilaren 8an itsasoratu zen, «[...] Entramos en la nave el martes de Quasimodo [...]», baina aurrez ontziko patrioiak honela esan omen zuen<sup>2</sup>:

[...] Lo recibire en mi nave, pero advertirle que voy a recorrer la mar universal, que mi nave no lleva mercader ninguno, y que los hombres que la tripulan son todos destinados a su servicio. En cuanto a nosotros, hemos hecho el sacrificio de nuestra vida; ponemos nuestra unica esperanza en Dios y creemos que nos salvara donde la fortuna nos lleve. Vamos a recorrer el mundo, sin que nos sea posible indicar adonde nos conduciran los vientos. [...].

Getariatik irten eta itsaso barrenean zehar ibili ondoren, azke-nean Finisterren lurra ukitzen dute:

[...] recorrimos el mundo por espacio de sesenta y ocho días; despues vinimos a la extremidad del mundo [...], fuimos seguidamente a Andalucia, a la ciudad que esta en medio de el mar (Cadiz) donde permanecimos durante diecinueve días [...].

Itsasontzi hori ez zen merkataritzara edo urrutiko arrantzara abiatu, itsasoan nabigatzera eta munduaren aurkikuntzara baizik.

Joanes, istorio ederra bezain adierazgarria hau ere! Bidaiaren amaiera zuk ongi ezagutzen zenuen Cadiz hirian egiten da, aurrean nabarmendu dugun euskal nabigatzaileen giltzarria izan den portuan. Euskaldunen itsas bidaietan, Cadiz, misterioz eta ezkutuko Petra edo Alexandria izan ote zen?

[1] García Mercadal 1999: 397.

[2] García Mercadal 1999: 397.



Zail egiten da zure bizitzako pasadizoak laburtzea, eta honek beti sotoetako hautsetan uztea darama hain garrantzizkoak izan diren zure egintzak.

Estreinako espedizioan, Magallanes hiltzean, berarekin joan zen isilpeko eta esan gabeko bidaiaren *derrota-rumboa*, eta Moluketarako itsas-derrota zuk eman behar izan zenuen. Ondorengo hilabeteetan, Tidore uhartetik zure 80 tonako ontziarekin Antartikako uretaraino jaitsi eta naturaren eraso guztiak gaindituz, zortzi hilabetean etxeraino lurrik ukitu gabe iristea lortu zenuen. Alexandriar jakintsuek esana, mende askoren buruan zientifikoki egiaztatu zenuen. Lurbi-raren lehenengo zuzeneko itzulia izan zen zurea.

Ekarpen geografiko, etnografiko, nautikako kartografia, lurralde eta uharte ezjakinen berriak eta hain preziatuak ziren espezieak... mendebaldeko munduari azaldu zenizkion. Hau guztia honela izanik ere, miresgarriagoa egiten zaigu itsas nabigaziorako zenuen jakintza, ausardia eta trebezia. Niri, halere, zure pertsonak eta izaerak ere erakartzen dit. Bestela, egitandi ikaragarri hori ezin izango zenuen burutu, ez dut uste posible izango zenik.

Oraintxe datozkit gogora, hainbatetan On Joxe Miel Barandiaranekin izandako hitz-aspertu haiek, gizakion betiko galdera ezagunak tartean zirela. Zientziak eta humanismoa ez daude kontrajarriak, osagarriak dira. Orokortasunetik ikerketaren zurrunbiloan induskatzea, eta datu multzoaren amaraunean bereizten jakitea da jakintza. Jakinduria banandua dagoena bateratzea ere bada, eta klasikoek zioten antzera, argia zabaltzen jakitea. *Lux ex Tenebras*

Zuk ere, garaiko hain jakintza zabala izan zenuen jakitea zaila da. Baina Joanes, egin zenuen itzulera burutzeko, ezaguera horren orokortasuna izan bazenu bezala jokatu zenuen, eta hala gertatu zen.

Atrebentziaz dakart, Carlos erregeari egin zenion gutuna: «[...] hemos llegado diez y ocho hombres solamente con una de las cinco naves... es que hemos descubierto y dado la vuelta a toda la redondez del mundo, que yendo para el occidente hayamos regresado por el oriente... suplico por los muchos trabajos, sudores, hambre y sed, frio y calor que esta gente ha padecido... les haga merced de la cuarta... Sanlucar 6 Sep-1522, escrita a bordo de la nave Victoria». Zure



gizonekin gogoratu zinen estreina, eta lehorrean oinak lurreen jarri baino lehenago idatzi.

Zure zuzeneko eskuko-testu bakarrenetakoa dugu. Birrinduak edo ezkutuan daudenak eskuetan bagenitu, balore historikoaz gain, zure nortasun eta gizabide-maila nolakoa zen zehatzago jakiteko aukera izango genukeen, baina tamalez ez da hala. Garaiko kronikari batek zure ahotik entzundakoa honela jaso zuen: «[...] cosa en la verdad que no se sabe ni esta escripta, ni vista otra su semejante, ni tan famosa en el mundo [...]».

Zu joan eta gerora, aintza eta ohore asko jaso zuen zure izanak. Baina izan dira kronikari eta historialari anitz, mendeetan, zure pertsona arras gutxietsi eta txikiagotu dutenak ere. Anglosaxoi mundu akademikoan ere, lehenengo lurbiraren itzulia oraindik Francis Drake-ri dagokiolakoan daude. Pigafetaren irudimenak eta fantasiak dira aintzat hartzen direnak. Irakurri berri dugu, Magallanesen espedizioaz egindako liburu batean doi-doi zure aipamena, bazterreko ekintza arrunt gisa aipatzen dute. Bekaizkeria ote?

Espainiar munduan ospez aipatua izan arren, ez zara behar bezala onartua izan. Cánovas del Castillo espainiar politiko eta akademiakoak, harropuzkeriaz honela zioen hitzaldi batean: itzulia eman bai, baina hala ere «modesto maestre, mas practico que científico y antes que capitán aventurero»<sup>1</sup> izan zinela. Zoritzarrez, berrikitan eta zuzenean antzekoak entzutea ere egokitu zaigu, gure harridurarako.

Gizon ezjakina eta arrunta ez zinen inondik ere izan, Joanes! Ez horixe! Zure jakintzagatik, gaintitua izan zen *longitudearen arazoa*, bete-betean neurtu eta zenbatu zenuenean. Ondotxo zenekien anti-meridianoaren muga zientifikoki non kokatu. Hortaz, nor zinelako, Carlos erregeak zu izendatu zintuen, beste kosmografo-geografo-filosofo eta jakintsuen artean, portugaldarrekin Badajoz-ko Batzarrean, inperioen arteko Moluketako jabegoa erabakitzeko.

Edonoren eskuetan ez zeuden garai haietako jakintza liburu eta tresna nagusiak zurekin zenituen. Latinez idatzitako Monterregio-

---

[1] Cánovas del Castillo, A., 1879, *Boletín de la Sociedad Geográfica*, Tomo VI, 1er semestre: 377 or., Madrid.



ren almanaka, eta agian Abraham Zacut judutar jakintsuarena zen astrologiako liburua, zure lagun maitea zen Andres San Martin itsas-pilotu ospetsuenari uzteko agindu zenuen, *bizirik balego* esanaz.

Beste inork ez bezalako gaitasun zientifikoa zenuelako, eman zitzaizkizun espedizioiko iparrorratzak magnetizatze bost iman-harri: «[...] por cinco piezas de piedra yman que se dieron al capitán Joan Sebastian para azevar las agujas [...]», irakurri dut ene hurbileko adiskide Iñaki Azkune Mendia jaunak eskuratu dizkidan eskuizkribuen artean.

Zure heriotza, Joan Sebastian, Itsas Bareko ekinokzioko marran, 1526ko abuztuaren 4an gertatu zen, testamentua egin eta egun gutxiren buruan. Honela esan zuen Urdanetak: «[...] fallecio el magnifico señor Juan Sebastian de Elcano [...]». Zurekin batera, egun gutxitan, espedizio berraren buru eta ofizial nagusi gehienek ere zure zoritxar bera izan zuten. Eta zer arraio gertatu zen, jakin-nahia izango duzulakoan nago. Historialari eta biografoek diote, elikadura eskasaren ondorioz zendu zinetela. Oro har esan izan da, C abitaminosiak eragindako eskorbutoa gertatu zela.

Zurekin Moluketara bidaiari joan, eta bizirik itzuli ziren baka-nengandik jaso ditugun hitzetan, aurkitu dugu erantzuna. Esandakoei buruz hausnartu eta gaurkotu ondoren, esan dezakegu *ziguatera* izeneko gaitzarekin pozoitu eta hil zinetela. Hau izan zen zure bidaiaren hondamendiaren arrazoi nagusia, eta ez eskorbutoa bakarrik.

Hara espediziotik itzuli zen bakarrenetakoak, Joanes Areizaga zestoarrak, eta Zumaiako apaiza zenak, Indietako kronikari Fdz de Oviedori kontatutakoa, eta honek 1535ean argitaratua<sup>1</sup>:

Un día se tomo un pescado que paresçia corvina, tan grande como un salmon de veynte libras, y todos los que comieron a la mesa del capitán general, enfermaron por le comer, de tal manera que no pensaron escapar; y creyose que murieran, si no fueran socorridos con triaca y otros remedios, y non obstante esso estovieron muchos

---

[1] Fernández de Oviedo, G., 1557, *Historia General y Natural de las Indias (Libro XX dela segunda parte dela general historia delas Indias)*, cap.VI: 36 or., Valladolid. (Fernández de Córdoba, F., ed.).



dias enfermos. Decía este reverendo padre clérigo, que el vido este pescado, y que tenía los dientes como un grand perro, y que el mismo mato otro tal (pero mayor) que los tenía de la misma manera, que pesso mas de çinquenta libras; pero que no osaron comer del, por lo ques dicho y lo echaron a la mar. [...].

Testuan aipatzen den arraina pikuda da, baina *barrakuda* izenez ezagunagoa egiten zaigu, gaur egun.

Beranduxeago, zure ikasle izan zen Andres Urdanetak ere, erregeri 1536an egindako txostenean, antzeko hitzak idatzi zituen.

Ohikoa denez, medikuntza zientzien historian, eta abar, aurretik izan dira beti anglosaxoiak. Beraiek, ziguatera gaixotasunaren lehen koadro klinikoaren deskribapena egiterakoan, 1774an James Cook kapitaina izan zela diote.

Eta ziguatera delako hori, zer den itaunduko duzu, Joanes. Bada, gaixotasun hau ur tropikoetan eta azpitropikoetan ematen da. Urtean 50.000 heriotza eragiten du gaur egun, baina heriotza tasa handiagoa dela uste da, bestelako gaixotasunei egozten zaielako edo diagnostikatu gabe gelditzen direlako.

Ziguatera, toxina ezberdinen eraginez gertatzen da. Garrantzizkoena ziguatotoxina da, eta hau mikroorganismo unizelularrak diren dinoflagelatuak ekoitzarazten dute. Organismo hauek itsas fitoplaktonean eta uharri edo arrezifetako goroldiotan bizi dira. Koralezko uharrietako krustazeo eta arrain belarjaleek haietaz elikatzean, toxina berenganatu arren, ez die kalterik egiten. Elikaduraren katearen piramidean, beste arrain karniboroak belarjaleak jaterakoan, ziguatotoxina hori berenganatu eta pilatzen joaten dira. Azkenik, arrain hauek gizakiok jaterakoan, metatutako toxina horiek gureganatzen ditugu. Ez dago bat-batean bereizterik, arraina kutsatuta dagoen ala ez.

Ziguatotoxina hau irakite eta izoztearekin, ez da aldatzen. Ez du kolorerik, ezta usain eta zaporerik ere. Ezkutuko pozoia da, eta kaltea luzean irauten du.

Gizakiak arrain kutsatua jan ondorenetik, hamabi ordurako pozoitzearen koadro klinikoa adierazten da: botagura, sabeleko mina, gonbitoak eta batik bat beherakoa, *irse de camaras* kronikariek



hots egiten zioten. Baita hotzikara, azkura orokorra, nekea eta oreka galtzea, aldaketa kardiobaskularra, bradikardia edota takikardia, bihotz blokeoa, shock-a eta heriotza. Baina, bi sintoma patognomonikoek bereizten dute ziguetara: bata, tenperaturaren aldaera edo inbertsio termikoa; eta bestea, mihi eta aho inguruko inurritzea.

Aldi berean, luzarora, toxemiaren arabera, disestesiak eta paresesia, ataxia –ibili ezina–, eta abar, izan ditzake.

Sintoma neurologiko hauek hilabeteetan irauun dezakete, toxina ez baita degradatzen. Atsedenaldira baten ondoren, indartsuago eraberritzea gerta liteke alkohola edo beste elikagai batzuekin. Gaixotasun hau izan dutenek diote, okerrena, gaitasun intelektuala ez dela gutxitzen, eta herioaren pertzepzioa nagusitzen dela egunetik egunera.

Sendagai zuzenik ez du, eta egun tratamendu espezifikorik ez dagoen arren, *manitol* erabiltzen da gainbeherako nahasmen neurotoxikoa baretzeko.

Horrenbestez, gure eta beste aditu batzuen aburuz, ziguetara gaixotasuna izan zen, zure eta zure ondokoen heriotzaren eragile zuzena. Argitu uste dugun arrazoi hau, eta bestelako ezaugarriak, ordea, mendeetan historiaren misteriozko apaletan, ilunpean egon dira.

Une honetan, galderak ur-jala bezala datozkit. Ziguetarekin zendu ez bazina... Cipango-ra, Japoniara, joateko asmoa omen zenuen... Itzulera nondik egitea pentsatua zenuen? Urdanetak, hainbat urte beranduago egindako *tornaviajea* izan ote zen zure asmoa eta ametsa?

*Joan Sebastian herrikidea:* Ozeano Barean hil ondoren, zure arimak sortetxerako bidea hartu zuen, Ulisesenak Itakarakoa hartu zuen bezala. Getariako hiribilduko itsasoan, zure itzulerako itsasontzian lagun izan nauzu, eta bertako getariarren «portuetxetan», Urkiola, Etxabe-Asu, Agote, Erromero eta Aldamartarrean, Gorostiditarrean... hainbat oztopo gaitu ondoren, Xabier Alberdi eta Jose Manuel Perez «Suso» arkeologo eta historialari adiskideek eta zure sortetxearen orubeko oraingo jabeek baieztatu egin zidaten, Joan Sebastian, zure Itaka edo jaiotetxea non dagoen. Geta-



riako Gaztakapeko amildegiaren ertzean, garai hartako Plateria ize-neko kaleko horman, bost hizkuntzatan zizelkatu dugu zure izena, zure arima sortu eta betiko datzan lekuan.

Ez zenuen asko esperoko, baina jakizu, zurekin joandako etxe-ko anaiak eta zure koinatu eta ilobak ere, denak galdu zirela, beste getariar eta gainontzeko gehienak bezala.

Getariako etxeak alargun eta umezurtzez bete ziren. Hondamen-dia ikaragarria izan zen. Testamentua egin zenuen, hainbat buruta-pen betetzeko asmoarekin. Erregek zor zizkizun 200.000 marai laga zenituen, zure azken borondateko aginduak bete zitezten. Baina urteak joan eta urteak etorri, ez zen posible izan, eta 1535ean zure ama gaixo eta familia beharrean zegoela, agindua idatziz eman zen, dirutza hori ordaindu zedin: «[...] la dicha doña Catalina del Puerto, me suplico que porque la dicha su parte, esta enferma y con mucha necesidad [...]». Dena alferrik hala ere, ohikoa zenez espainiar erre-gegandik zure etxe-koentzat ez zen sosik etorri Getariara. Hitza jan eta zorrak betirako.

Zure leinua apika galdu egin zen, eta ondasunak ahitu. Elkanotarren jaiotetxea 1597ko suteak hondatu zuen, herriko beste etxe guztien antzera, eta ondorengo mendeetako gerrateek oinarrietaraino deseginda utzi zuten Getariako herria.

Konbentzio gerrarekin, ondoren Napoleonen suntsiketak eta karlistaldietan gertatutako sarraski eta erreketekin, herriaren agiritegi zaharraren memoria joan zen betirako. Eta zure testamentuan izen-datutako herriko ermita eta ospitaleak erabat desegin eta desagertu egin ziren: Erdi Aroko Magdalena, Sananton mendiko eta moila zaharreko San Pedro elizak, San Sebastian eta San Lazaro ospitaleak, San Gregorio zaharra, eta Santa Kruzeko «Humilladero» gotikoa, nire idatzietan aipatuak ditudan bezala<sup>1</sup>.

[1] Txueka Isasti, Fernando, 2010, "Getariako «Humilladero»: Santa Kruz Ermita zahararen historia", *BAP* 66-1, 5-25; 2010, "Getariako antzinako *San Sebastian* ospitalea, *Magdalena* hospizioa eta *San Lazaro* eta *San Anton* lege-nardun-etxea. Hurbilketa historikoa", *BAP* 66-2, 413-448 (Artikulu honen aipamena "Enfermeria Avanza" webgunean ere egin zen: 2011.08).



Zure aitaren garaiko San Pedro marinelen kofradia desagertu egin zen, denborak irentsita. Hala ere, XX. mende hasieran, birsortu egin zen, eta zure ohoretan *Elkano* izena jarri zioten. Harrezkero, hala izendatzen da. Orduetik hona, zure testamentuko elizen legatuak konplitzeko, urtero Kofradiako arrantzaleen artean hamar marinela izendatu eta erromes joaten dira zure borondatea betetzera. Bejondeizuela!

Getariarrak ez dira, bada, inoiz zutaz ahantzi. 1922an zure lehorreratze edo desenbarkua berritu zen, lau mende ondoren. Eta harrezkero, etenik gabe, lau urtetik behin errepikatzen dugu handikiro zure epopeia, eta gogorarazten zure ohorea eta jakinduria. Oraindik gogoan ditugu *Manuel Pierres* eta *Miguel Isasti*, zure irudia gaurkotu zuten gizon handi haiek.

Joanes, ni gaur hemen izatearen arrazoia, eta zuri gutuna zuzentzearena ekitaldi honetan, *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartekoa* izendatu nautelako izan da. Ni baino merezimendu gehiagokoak izango dira, baina ezin uka ohorea ere badela zure herrikide honentzat.

Jakizu, ia 250 urte direla Adiskideen Elkartea hau sortu zela, eta bultzatzaileen artean, Azkoitiko Peñaflorida, Narros eta Altunaz gain, getariar bat ere izan zela: Juan Mathias Barroeta Aldamar. Elkartea honetakoak XVIII. mendeko Euskal Herrian, protagonistak izan ziren Europako Ilustrazio zientziak, medikuntza eta baliabide tekniko berriak gure herrian ezagutarazten. Elkarteko lehen bazkide edo Adiskideek, «Azkoitiko Zalduntxoak» izenez ezagutuak, euskaldunen artean jakintza eta garapena maila guztietara zabaltzen zuten, eta beti herriaren zerbitzura jartzea zuten helburu. Euskara ere ez zuten alboratu euren estatutuetan.

Ezin aipatu gabe utzi, eta omendu dezagun baita ere, aurretik azkoitiarren artean izan zen Joanes Etxeberri Sarakoa, sendagile eta euskal idazle bikaina. Era berean, ondotik etorri ziren mediku eta euskaltzaleak ere, euskara modernitaterako gaitzea zutenak helburu. Zerrendatzea egoki bada, eta denak tamalez ezinezkoa denez, bakar batzuk besterik ez ditut aipatuko: Juan Antonio Mogel, Pablo Fermín Irigarai «Larreko» eta bere seme Aingeru nafarrak, Martín Larralde lohizundarra, Pierre Broussain, David ezepletarra, Albert

Konstantin eta Jean Jauregiberri zuberotarrak, Muxikako Arrospide, Lizarralde, Apaolaza, Zelaia, Artetxe. Diez de Ultzurrun nafarra, zarauztarra zen Zinkunegi... eta ezin ahaztuzkoak diren Teodoro Hernandorena eta Justo Garate. Michel Labegueri eta Mikel Laboa mediku eta musikariak ere. Nola ez, Euskal Unibertsitatea sortzen bultzatzaile, eta Baskongadako adiskide eta zalduna genuen On Iñaki Barriola jauna. Eta azkenik, nire lagun maiteak ziren Joxean Agote eibartarra eta Antton Bandres tolosarra.

Guztien omenez, ekarri nahi nituzke hona *Jean Etxepare* mirikuaren esanak, bere *Buruxkak* liburutik<sup>1</sup>: «Adituko dut edozoini urrerik ez dela aski, gizon baten bizia eros dezakenik. Eta bizia begiratu dakokanean, hogoï libera urre haren ganik ezin bilduz higatuko duk hire burua, galduko heure bizia. Atxizkik halere hire eskuak garbi, laño hire bihotza. Medikuntza duk ofizioetan ederrena».

Joan Sebastian Elkanokoa, sortzetik ama hizkuntza bera duguenez, gaur zuri eta zutaz mintzatzerakoan, nola ez nintzen ni euskaraz ariko, adiskide haiek sortutako erakundeko harrera honetan. Jakizu, baita ere, zorionez, munduan diren jakintza guztiak, gaur egun, gure Unibertsitateetan euskaraz irakatsi ahal direla.

Aski laburregia gertatuko zitzaizun, beharbada, gutun honetako albisteen berri ematea, baina uzteko garaia edo tenorea dudanez, bukatzea noakizu. *Joan Sebastian bidelagun*, gaur hemen bildu garenon partetik, Agur eta Goraintziak hainbeste belaunaldietako getarriar zintzo guztiei, eta bereziki hain maitea izan zuen Talaiatik Pedro Chueca Etxaniz nire aita zenari.

Mila esker, zuen arretagatik.

---

[1] "Mediku xaharrak gazteari": 123.



JUAN SEBASTIAN DE ELCANO, DESDE LA ATALAYA DE GETARIA

*REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS  
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA*

### LECCIÓN DE INGRESO

**Fernando Txueka Isasti  
Getaria, 23.06.2012**

Desde tiempo inmemorial Getaria se sitúa en los acantilados de Ipuzkoa. Su ser y su destino están ligados al mar Cantábrico, de donde han transcurrido pueblos y culturas que han recalado en estas costas. Las viejas calles y muros son testigos de esta larga historia que, aunque parece olvidada, ha sido transmitida de generación en generación, definiendo la idiosincrasia de los getariarras.

Getaria, lleva siglos oteando el horizonte desde sus atalayas, con sus fronteras abiertas al mar. La ballena ha sido el eje de su ser y de su memoria; es la espina dorsal de su historia. Desde fines del período romano, durante los siglos oscuros, los habitantes de este rincón de Ipuzkoa, dedicados a la pesca y a la agricultura, desarrollaron la caza de la ballena que en adelante constituyó uno de los puntales de su humilde economía.

Desde el Eneolítico hasta tiempos recientes los rebaños procedentes de Aralar, Urbasa y Andia han venido a la costa: En Askizu y Garatemendi tenían los pastos de invierno, donde enterraban las cenizas de sus difuntos en los túmulos de Arriaundi.

El día de hoy, vispera de San Juan, está repleto de sabiduría y misterio. En Getaria durante siglos el día de San Juan marcaba el inicio del ciclo anual, ya que ese día se elegían los miembros del concejo.

Getaria, parada y refugio de peregrinos a Santiago, poco a poco se fue urbanizando a partir de la iglesia. La ballena era la base de su economía pero a medida que crecía su población se fueron reforzando la construcción naval y el comercio, llegando a ser uno de los principales puertos del reino de Navarra. Hoy día es un hecho reconocido la fundación navarra de la villa allá por los finales del siglo XII, por mano, probablemente de Sancho el Sabio.

A lo largo de la Baja Edad Media los vascos constituyeron una verdadera potencia marítima, cuyas actividades navales se extendían desde el Atlántico norte hasta el Mediterráneo oriental. Getaria era uno de los principales puertos de la época, lo que se manifiesta en hechos como:

- 1270: Obtención del privilegio real para obtener madera en cualquier bosque de Gipuzkoa con destino a la construcción naval.
- 1296: Activa participación en la formación de la Hermandad de las Marismas, cuyo diploma fundacional se guardaba en el archivo de Getaria.
- 1351: Firma del tratado de paz entre Inglaterra y Gipuzkoa, siendo uno de los firmantes Martinun Estephan de Golindano, vecino de Getaria.
- 1397: Formación de la Hermandad de Gipuzkoa, germen de la Provincia, en este mismo templo.

El getariarra *Juan Ibañez de Iceta* es un ejemplo representativo de las actividades de sus vecinos: En 1384 con su nao *Santa María* transportó sal de Ibiza a Génova, de donde regresó con mercancías a Valencia. De allí recaló en varios puertos de la Granada musulmana antes de recibir carga en Cádiz con destino a La Rochelle, de donde fue consignada a Southampton.

Toda esta actividad se recogía en un tiempo en el rico archivo de Getaria; esta riqueza ya perdida, queda de manifiesto en una carta remitida en 1802 por Vargas Ponce al padre Echeverría, franciscano que residía en Aranzazu: *Fui a Guetaria en cuyo archivo me aseguraban nada hallaría; y he hallado el mas rico de los diplomas, que empiezan en 1202, que hasta ahora conozco en esta Provincia. Contaba con algun amanuense y no pude contar sino con mis dedos que muchos dias dejaron inchados la improba y material tarea (...)*

En tiempos de Eleano era una villa fastuosa. Según *el censo o quaderno de los millares de 1483* había en Guetaria:

16 casas torres  
280 casas y caserías  
249 solares o sin casa (asi habia 57 propietarios mas que sin propiedad)  
1 nao, 4 caravelas, 3 navios, 18 chalupas... en todo 26 buques hoy  
549 hombres al menos  
6 mancebas vulgo putas  
5 ferrerías tenia el concejo entre otros propios  
7 pilotos  
Varios plateros  
Calafates, carpinteros y toneleros  
Muchos zapateros.  
Medico y sastre (...)

Es muy significativa la presencia en el siglo XV de un médico en Getaria. A este respecto decía Lope de Isasti un siglo después: *De cien años a esta parte se hallan medicos en esta provincia, y de ellos pocos, que por haber hecho diligencia no he hallado mas que diez y siete, porque los naturales de Guipúzcoa no se inclinan a esta facultad sino es por maravilla (...)*.



A esta Getaria cosmopolita de fines del siglo XV pertenecía la familia de Elcano. Su padre, *Domingo Sebastian de Elcano*, era maestre de nao y comerciante, miembro de una de las más opulentas familias de comerciantes de la villa. Su madre, *Catalina del Puerto* pertenecía a un poderoso linaje de escribanos y eclesiásticos. Tuvo, que sepamos, cinco hermanos y tres hermanas. El mayor, *Sebastian*, se dedicaba al comercio en el Mediterráneo: en 1507 se hallaba en Nápoles y en 1517 en Mesina, vendiendo hierro fabricado en la ferrería de Alzolaras de Zestoa. Otro hermano, llamado *Domingo*, fue clérigo. Los otros tres hermanos, *Antón Martín*, *Ochoa Martín* y *Martín Pérez*, además de su cuñado *Santiago de Guevara*, marido de *Inesa*, y su sobrino *Esteban de Mutio*, hijo de *Maria de Elcano*, fallecieron junto a *Juan Sebastián* en el segundo viaje a las Molucas. La última hermana, *Catalina*, se casó con el contador *Guinza*.

*Juan Sebastian de Elcano* nació en 1486. Fue un hombre del Renacimiento, tanto por su obra como por sus conocimientos; coetáneo de Leonardo da Vinci, Pico della Mirandola y de la obra de Copérnico que no llegó a conocer.

Dedicado al comercio en el Mediterráneo fue condenado a la pérdida de su nave, acusado de haberla vendido a enemigos. Mucho se ha fantaseado acerca de que ésta fue la causa por la que embarcó en la expedición de Magallanes. La realidad es otra bien distinta. Por entonces, el vizcaino doctor Matienzo figuraba a la cabeza de la Casa de Contratación de Sevilla, cuyo sobrino estaba casado con una hija del contador Juan López de Ibarrola y Gainza, natural de Getaria y pariente de los Elcano. Así embarcó como maestre y no como un simple marinero fugitivo de la justicia.

Elcano fue bautizado en esta pila bautismal de esta iglesia de Getaria. En la pequeña escuela de la iglesia recibió los primeros conocimientos del *trivium* y del *quadrivium*. Amaba la geometría y los mapas de Ptolomeo y, quizás, tuvo conocimiento del descubrimiento de Eratóstenes de que el mundo era circular. Recibió, también, las nociones de astronomía necesarias para orientarse en el mar y llegó a dominar el idioma del saber de la época: el latín.

En 1494, cuando tan sólo contaba con 8 años debió impactarle la aventura del obispo armenio Martir, quien de regreso de su peregrinación compostelana, llegó a Getaria, donde tomó un barco con el que: (...) *recorrimos el mundo por espacio de sesenta y ocho días; despues vinimos a la extremidad del mundo (...), fuimos seguidamente a Andaluca, a la ciudad que esta en medio de el mar -Cadiz- donde permanecimos durante diecinueve dias, porque habiamos grandes temporales y nuestro barco experimento averias, que se ocuparon de reparar aqui (...)*. Es decir, no un simple viaje comercial o pesquero, sino una verdadera expedición de descubrimiento.

Su sabiduría y pericia marinera se manifestó tras el fallecimiento de Magallanes, cuando tuvo que ingeniar la derrota a las Molucas, que el portugués llevó consigo a la tumba, así como la ruta de regreso desde Tidore con su pequeña nao de 80 toneles, descendiendo hasta las aguas del Antártico.

Su talla humana quedó de manifiesto en la carta que remitió al rey Carlos a su regreso antes de poner pie en tierra: (...) *hemos llegado diez y ocho hombres solamente con una de las cinco naves (...)* es que hemos descubierto y dado la vuelta a toda la redondez del mundo, que yendo para el occidente hoyamos regresado por el oriente (...)

*suplico por los muchos trabajos, sudores, hambre y sed, frio y calor que esta gente ha padecido (...) les haga merced de la cuarta (...) Santucar 6 Sep-1522, escrita a bordo de la nave Victoria. Su primera preocupación era para con los supervivientes de su tripulación.*

En su tiempo su nombre fue colmado de gloria y honores que los cronistas e historiadores posteriores le han negado, unos en beneficio de Francis Drake y la mayoría en la de Magallanes. Tampoco la historiografía española le ha hecho justicia. Por ejemplo, Cánovas del Castillo, padre de la moderna historiografía española, afirmaba: *modesto maestro, mas practico que científico y antes que capitán aventurero.*

Nada más lejos de la realidad. Merced a su gran saber logró superar el problema del cálculo de la longitud, supo situar científicamente el límite del antimeridiano y fue designado por el rey Carlos para que asistiera junto con otros cosmógrafos, geógrafos y filósofos a la cumbre de Badajoz con los portugueses para dilucidar la pertenencia de las Molucas. Entre sus pertenencias figuraba la obra latina *Almanaque de Monterregio*. A él se le asignó la fundamental tarea de imantar las cinco brújulas de la expedición: (...) *por cinco piezas de piedra yman que se dieron al capitán Joan Sebastian para azevar las agujas (...).*

Tras su fallecimiento el día 4 de agosto de 1526 en el Océano Pacífico escribió Urdaneta: (...) *fallecio el magnifico señor Juan Sebastian de Elcano (...).*

Al mismo tiempo fallecieron la mayoría de los oficiales al mando de la expedición, víctimas de Ciguatera. Según reza la crónica de Fernández de Oviedo que recoge el testimonio de Joanes de Arcizaga: (...) *un día se tomo un pescado que parecia corvina, tan grande como un salmon de veynte libras y todos los que comieron a la mesa del capitán general, enfermaron por le comer, de tal manera que no pensaron escapar; y creyose que murieran, si no fueran socorridos con triaca y otros remedios y non obstante esso estovieron muchos días enfermos. Decía este reverendo padre clérigo, quel vido este pescado, y que tenia los dientes como un grand perro, y que el mismo mato otro tal pero mayor que los tenia de la misma manera, que pesso mas de cinquenta libras; pero que no osaron comer del, por lo que dicho y lo echaron a la mar (...).*

La ciguatera es causada, entre otras, por la ciguatotoxina, producida por ciertos microorganismos presentes en las algas y acumulada en los peces que consumen dichas algas o devoran dichos peces herbívoros. No existe, a día de hoy, tratamiento específico contra esta intoxicación.

**Juan Sebastian de Elcano**, tu recuerdo sobrevive aún entre nosotros: permanece el solar de tu casa natal donde hace poco se ha descubierto una lápida conmemorativa en cinco idiomas. Cada año los miembros de la Cofradía de Mareantes de Elcano donan limosnas a diversos santuarios en cumplimiento de tus mandas testamentarias que tus descendientes no pudieron hacer, dado el estado de penuria en que quedaron en espera de las remuneraciones que el rey te debía y nunca se materializaron. El pueblo de Getaria nunca se ha olvidado de ti y en 1922 cuatro siglos después rememoró tu desembarco que desde entonces se celebra cada cuatro años.

Muchas gracias por vuestra atención.